

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresak bere eginkizuna bete dezan, proiektuko kolaboratzaile bakoitza eskaintzen dugun zerbitzuaren antolaketaz eta publizitateaz arlo espezifiko batez arduratuko da.

Gure jarduera aurrera eramateko beharrezkoa izango dugu beste enpresekin elkar lanean aritzea zenbait jardueretan.

Udala da enpresak duen aliantzarik handiena; izan ere, gure enpresak kirol-ekitaldi batzuk antolatzearen truke, hala nola kultura-ekitaldiak, eta komunitatearen arteko inklusio- eta integrazio-giroa bultzatzearen ondorioz, hainbat arlotan laguntzen digu. Erakunde honek kiroldegia eta udal kulturgunea erabiltzeko aukera ematen digu, gure jarduerak egiteko, eta, horrez gain, webgunetik erakartzeko publizitatea ere egiten digu.

Era berean, euskal herriko unibertsitatearekin bat egingo dugu, hezkuntza bereziko graduko ikasleei gure enpresan praktikak egiteko aukera eskainiz, eta horri esker, unibertsitateak irudi hobea irabaziko du publiko orokorraren aurrean. Horri esker, enpresak langile kualifikatuak lortuko ditu, ohi baino kostu txikiagoarekin, praktika moduan lan egingo baitute.

